



Esp. kodea: 2014SAPL0003

Gaia: PLENOA 2014/04/08

AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2014ko apirilaren 8an egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela jakinarazten dut::

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2014ko martxoaren 19an egindako bilkuraren akta onartu du.

2.- BEHIN-BETIKOZ ONARTZEA HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRAREN 7. ALDAKETA (ALTZAURTI ETA ASUBEALDE) (2013HPOA0001).

Udal Plenoak, aho batez, erabaki du behin betikoz onartzea “ARRASATEKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRAREN 7. ALDAKETA PUNTUALA”ren testu bateratua, Altzaurti eta Asubealde tokietan eragina duena.

3.- ÍARRASATEKO ALDE ZAHARREAN TERMITA IZURRITEKO INSEKTUAK KENTZEKO ETA KONTROLATZEKO ZERBITZUAÍ ADJUDIKATZEA (2013CHOZ0015)

Udal Plenoak, aho batez, erabaki du “ANTICIMEX 3D SANIDAD AMBIENTAL S.A.” enpresari adjudikatzea “ARRASATEKO ALDE ZAHARREAN TERMITA IZURRITEKO INTSEKTUAK KENTZEKO ETA KONTROLATZEKO ZERBITZUA”, 98.266,00 €tan, BEZa sartu gabe, (118.901,86€, BEZ barne) eta 5 urteko epean.

4.- HASIERAKO ONESPENA EMATEA UDAL ORDENANTZARI, IRISGARRITASUN EGOERA HOBETZEKO DESJABETZA JARDUNBIDEA ARAUTUKO DUENA.(2014HORD0001).

Udal Plenoak, aho batez, erabaki du hasierako onarpena ematea “IRISGARRITASUN EGOERA HOBETZEKO DESJABETZA JARDUNBIDEA ARAUTUKO DUEN UDAL ORDENANTZA”ren agiriari, eta jendaurrean erakustea aipatutako Ordenantza hori, HOGEITA HAMAR egunean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita, interesdunek bidezkotzat jotzen dituzten alegazioak eta iradokizunak egin ditzaten.



Esp. kodea: 2014SAPL0003

Gaia: PLENOA 2014/04/08

5.- UDALBATZARRARI JAKINARAZTEA UDALAREN 2013KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN ONARPENA (2014RBAR0009).

Udal Plenoak berri hartu du Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko martxoaren 17an hartutako erabakiaz, zeinaren bidez Udalaren 2013ko Aurrekontuaren likidazioa onartua izan zen.

6.- UDALBATZARRARI JAKINARAZTEA ITURBIDE EGOITZAREN 2013KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN ONARPENA (2014RBAR0010).

Udal Plenoak berri hartu du Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko martxoaren 17an hartutako erabakiaz, zeinaren bidez Iturbide Egoitzaren 2013ko Aurrekontuaren likidazioa onartua izan zen.

7.- UDALBATZARRARI JAKINARAZTEA AUKEAREN 2013KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN ONARPENA (2014RBAR0011).

Udal Plenoak berri hartu du Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko martxoaren 17an hartutako erabakiaz, zeinaren bidez AUKEAREN 2013ko Aurrekontuaren likidazioa onartua izan zen.

8.- MUSAKOLA HAURRESKOLAREN INSTALAZIOEKIKO ERABILERA LAGAPENAREN LUZAPENA EUSKO JAURLARITZARI IZAPIDETZEA (2014FPAT0001).

Udal Plenoak, aho batez, erabaki du Musakola Haurreskolaren instalazioekiko erabilera lagapena bost urterako Eusko Jaurlaritzari eskatzea.

9.- UDAL KORPORAZIOAREN ORDEZKARIA IZENDATZEA SURADESA ERAKUNDEAN (2011SSEC0008).

Udal Plenoak, bertaratutako 19 zinegotzietatik 15en aldeko botoekin (10 BILDU, 4 EAJ-PNV eta 1 ARALAR) eta 4 aurkako botoekin (4 PSE-EE), erabaki du Udal honetako zinegotzia den Omer Arregi Biain zinegotziaren alde egindako izendapena, SURADESAn Arrasateko Udaleko ordezkari gisa jardutekoa, bertan behera lagatzea, eta horren ondorioz, Joseba Erramun Askasibar Zendoia zinegotzia izendatzea Udal honetako ordezkari SURADESA erakundearen.



Esp. kodea: 2014SAPL0003

Gaia: PLENOA 2014/04/08

**10.- ALKATEAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI HARTZEA, AZKENEKO BILKURATIK
PLENO HONETAKO DEIALDIA EGIN DEN EGUNERA ARTEKOAK**

Udal Plenoak Alkateak emandako Dekretuen berri izan du, N14/540tik N14/704 zenbakira bitartekoak.

Arrasaten, 2014ko apirilaren 8an

IDAZKARIA

Iñigo Garitano Larrañaga